

ERRETERIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA



Plan Orokorraren Bulegoa
Oficina del Plan General

IV. ALORREZ ALORREKO LEGERIA



IV.01.

22/1988 LEGEA, KOSTA LEGEA

22/1988 Legeak, uztailaren 28koak, Kosta Legeak, 1. artikuluan ezartzen du "itsas lehorreko jabariaren eta, bereziki, itsasertzaren zehaztapena, babesa, erabilera eta xahutasuna dituela helburu."

3. artikuluari jarraiki, estatuko itsas lehorreko herri-jabariko ondasunak dira, Konstituzioaren 132.2. artikuluan xedatutakoaren arabera:

1. Itsasoko eta itsasadarretako erribera, ondokoak barne hartzen dituena:

a) Itsas lehorreko zona, edo itsasbehera eskoratuaren edo marea bizi ekinozial handienaren lerroaren eta olatuak ekaitz ezagun handienetan iristen diren mugaren, edo hau gainditzen badute, itsasgora bizi ekinozial handienaren lerroaren artan dagoen espazioa. Zona hau ibaiertzetan zehar hedatzen da, mareen eragina nabaritzen den lekuraino.

Zona honetan barne hartutzat joko dira padurak, kostaldeko aintzirak, istingak, bartak eta, oro har, itsasgora eta itsasbeheren edo olatuen ondorioz edo itsasoko urak iragazten direlako urpean gelditzen diren behealdeko lurak.

b) Hondartzak edo hareak, legarrak eta harri-koskorak bezalako material solteak metatzen diren lekuak, malkarrak, bermak eta dunak barne, landarediarekin nahiz gabe, itsasoaren edo itsas haizearen ekintzak sortuak edo bestelako sorburu naturala edo artifiziala dutenak.

2. Jurisdikziopeko urak eta barruko urak, hondo eta zorupearekin, dagokien berariazko legeriak definitu eta araupetuta.

3. Zona ekonomikoko eta plataforma kontinentaleko baliabide naturalak, dagokien berariazko legeriak definitu eta araupetuta.

Itsas lehorreko herri-jabariaren erabilera eta, nolahi ere, itsasoarena eta itsasbazterrarena, librea, publikoa eta doakoa izango da haren izaerarekin bat datozen erabilera arruntetarako, hala nola ibiltzea, egotea, bainatzea, nabigatzea, untziratzea eta lehorreratzea, arrantzan egitea, landareak eta itsaskiak hartzea eta inolako obra edo instalaziorik behar ez duten eta Lege honen arabera onartutako lege eta erregelamendu edo arauekin bat etoriz egiten diren antzeko bestelako ekintzak.

Jabetzaren mugak

Legearen II. tituluan itsasertzaren aldameneko lurren gaineko jabetzaren mugak arautzen dira, itsas lehorreko herri-jabaria babeste aldera. Zehazki, honako hauek dira legezko zortasunak:



- Babes zortasuna:

100 metroko zona, itsasertzeko barne-mugatik barrualderantz neurtuta lurzoru urbanizagarriaren kasuan.

Zona honetan debekatuta daude bizilekutarako eraikuntzak, goi-tentsioko aireko lineak, metro bateko altueratik gorako itxitura opakak, publizitate-hesiak eta, oro har, itsas lehorreko herri-jabaria erabiltzeko zerbitzurik egiten ez duen beste edozein jarduera.

20 metroko zona hiri lurzoruaren kasuan.

Zona hau beti libre utzi beharko da oinezkoak eta zaintza eta salbamenduko ibilgailuak igarotzeko, espazio bereziki babestuen kasuan izan ezik.

- Bide zortasuna:

6 metroko zerranda, itsasertzeko barne-mugatik barrualderantz neurtuta.

- Itsasorako sarbide zortasuna.

- Eragin-zona.

Itsas lehorreko herri-jabariaren zehaztapena

Itsas lehorreko herri-jabaria zehazteko, 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, "Estatuko Administrazioak dagozkion mugaketak egingo ditu, jabaria osatzen duten ondasunen ezaugarriak aintzat hartuta", Legearen 3, 4 eta 5. artikuluetan xedatutakoari jarraiki.

Errenteriako kasu konkretuan, Kosta Legearen garapen arau-emaileak Pasaiako Badiaren eta Gabierrotako bigarren uharkaren arteko tartea hartzen du eraginpean, oinezkoen pasabidearen azpiraino, honaino nabaritzen baita mareen eragina. Administratiboki ondokoa da egoera:

-1992ko martxoaren 10eko Ministro Aginduaren bidez, itsas lehorreko herri-jabariaren mugaketa onartu zen Errenteriako udalerriko Lezoko Pasealekuko zubiaren eta Gabierrotako uharkaren (Luzuriaga, Santa Klara plazaren ondoan) arteko Oartzungo itsasadarraren tartean.

-1992ko apirilaren 3ko Ministro Aginduaren bidez, itsas lehorreko herri-jabariaren mugaketa onartu zen Trenbidearen zubiaren eta Lezoko Pasealekuko zubiaren arteko Oartzungo itsasadarraren tartean, Errenteria eta Lezoko udalerrietan.



-1992ko apirilaren 12ko Ministro Aginduaren bidez, seiehun eta hirurogeita hamahiru (673) metroko kosta-tartearen itsas herri-jabariaren mugaketa onartu zen Oartzungo itsasadarraren bi ertzetan, Gabierrotako uharken artean, Errenteriako udal-mugartean, 2001eko ekainaren 5eko planoetan definitzen denaren arabera.



IV.02.

1/2001 LEGEGINTZAKO ERREGE-DEKRETUA, UZTAILAREN 20KOA, UREN LEGEAREN TESTU BATEGINA ONESTEN DUENA

Uren Legearen Testu Bateginak honako hauek ditu xede, 1. artikuluko 1 eta 2. paragrafoetan ezarritakoaren arabera:

1. Testu Bategin honen xedea herri-jabari hidraulikoa, uraren erabilera eta Estatuari Konstituzioaren 149. artikuluan mugatutako eskumenen esparruan jabari horrekin zerikusia duten gaitan emandako eskumenen erabilera arautzea da.
2. Lur gaineko ur kontinentalek eta lur azpiko ur berriztagarriek, guztiak ziklo hidrologikoaren baitan, interes orokorraren mende dagoen baliabide bateratua eratzen dute, estatuko herri-jabariaren parte dena herri-jabari hidrauliko gisa.

Legearen 2. artikulua ezartzen du honako elementu hauek osatzen dutela estatuko herri-jabari hidraulikoa, Legean espresuki ezarritako salbuespenekin:

- a) Ur kontinentalek, bai lur gainekoek bai lur azpiko berriztagarriek, berriztate-denbora dena dela ere.
- b) Korrante natural jarraitu zein eteneko ubideek.
- c) Laku eta aintziretako hondoez eta lur gaineko ubide publikoetako urtegietakoek.
- d) Lur azpiko akuiferoek, baliabide hidraulikoak erabili edo eraginpean hartzeko ekintzen ondorioetarako.
- e) Itsasoko ura gezatetik datozen urak, behin produkzio-plantatik kanpo daudela aurreko paragrafoetan adierazitako edozein elementuri gaineratzen zaizkionean

Testu Bategineko 4. artikuluan eta hurrengoetan adierazitakoak kontuan hartu beharreko kontzeptu garrantzitsuak dira:

- Korrante jarraitu edo eten baten ibilgu edo ubide naturala ohiko ur-gordaldi handienetan urek estaltzen duten lurra da.
- Erriberak ur maila txikien gainetik dauden ubide publikoen alboko zerrendak dira.
- Ertzak ubideen mugakide diren lurak dira.

Ertzek honako arau hauek bete beharko dituzte luzera osoan:



-
- Zortasun-zona: 5 metroko zabalerako zerrenda, ubide naturaletik neurtua. Herri erabilerarako zortasun-zonak ondoko xedeak izango ditu:
 - Ubidea zaintzen duen pertsonalaren zerbitzurako pasabidea.
 - Arrantza-jarduerak egiteko pasabidea.
 - Pertsonen salbamendu-zerbitzuetarako pasabidea.
 - Noiz edo noiz eta beharrezkoa denean ontziak lehorreratu eta amarratzea.
 - Polizia-zona: 100 metroko zabalerako zerrenda. Polizia zonan administrazio-baimena beharko dute lurzuaren jarduera eta erabilera hauek:
 - Lurraren erliebe naturalaren funtsezko aldaketek.
 - Agregakinen erauzketek.
 - Mota guztietako eraikuntzek, behin betikoek zein behin-behinekoek.
 - Uholde gisako korrontearantzat oztopo izan daitekeen edo herri-jabari hidraulikoaren degradazioa edo narriadura eragin dezakeen beste edozein erabilera edo jarduerak.

Eraginpeko laku, aintzira edo urtegiei dagokienez, aintzat hartzeko ingurua ohiko ur-gordaldi handienen ondorioz lortutakoa izango da.



IV.03.

25/1988 LEGEA, ERREPIDE ETA BIDEENA; 17/1994 FORU ARAUA.

25/1988 Legeak, uztailaren 29koak, Errepide eta Bideenak, estatuko errepideen plangintza, proiektzioa, eraikuntza, kontserbazioa, finantzaketa, erabilera eta ustiapena arautzea du helburu.

Euskal Herriarentzako Autonomia Estatutuaren 10.33. artikulua adierazten du Autonomia Erkidego honen eskumen eskusibokoak direla "Interes orokorraren legeko kalifikapenik ez duten Lan Publikoak, edo eta beraien betetzeak beste lurralderik ukituko ez dutenak", eta hurrengo paragrafoan adierazten duenez, "Kamio-bideei dagozkienetan, Konstituzioaren 148. artikuluan 1 zenbakiaren 5. apartatuan bildurik dauden kompetentziaz gainera, Herrialde Historikoetako Diputazio Foralek osorik gordeko dituzte beren baitan dituzten erregimen juridiko eta kompetentziak, edo eta, hala nahi izanez gero, Estatutuaren 3. artikuluan arauera berrartuko dituztenak".

Horrekin guztiarekin bat etorritik, Estatuko Administrazioak, irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zizkion "orain arte Estatuko Gobernu eta Administrazioak emakidapean ez zeuden eta estatutuaren titulartasunpekoak izan diren errepide, bide eta autobide guztien gainean betetzen zituen funtzio eta ahalmen guztiak, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen barrutik igarotzen diren tartetan, estatuko oinarrizko sareko, sare osagarriko eta eskualdeko sareko ibilbideak ere barne direla".

Hala Autonomia Estatutuan nola Lurralde Historikoen Legean lurralde historikoei aitortzen zitzaizkien errepide eta bideen arloko eskumenen esparruan, 17/1994 Foru Araua, azaroaren 25ekoa, Gipuzkoako Errepide eta Bideena, landu eta onartu zen, eta 1. artikuluan ezartzen duenez "Foru Arau honen xedea Gipuzkoako errepideen eta bideen lege erregimena zehaztea da".

Foru Arauaren 2. atalburuak Bideen Herri-jabaria du aztergai: "Gipuzkoako errepideak eta bideak herri-jabariakoak eta erabilerakoak dira, beraz ezin dira ez besterendu eta ez enbargatu eta preskribaezinak dira".

8. artikulua bideen herri-jabaria noraino iristen den zehazten du, baita herri-jabariarena definitu ere.

1. Errepideen parte dira eta, beraz, bideen herri-jabariakoak galtzadaz gainera, hau da, ibilgailuen zirkulaziorako gainazalaz gainera, zabalguneko elementu guztiak, hala nola bazterbideak, bermak, arekak, pasealekuak, ezpondak eta lubetak, eustorma eta sostengu hormak, zubi, zubibide eta tunelak, egiturak eta gainerako fabrika obrak eta, oro har, errepidea dela-eta egindako eraikuntza lan guztiak.
2. Errepidearen parte dira eta, beraz, bideen herri-jabariakoak errepidearen gainean, azpian eta ezker-eskuin dauden herri-jabetzako lurrak zortzi metroko zabaleran autobide, autobia eta errepide lasterren kasuan eta, oro har, Lehentasuneko Sareko Sare Gorriko)



errepideenean, eta hiru metroko zabaleran gainerako errepideetan, beti zabalgunearen kanpoaldeko marrik neurtzen hasita.

3. Bideen herri-jabarikoak dira, errepideen elementu funtzionalak direlako, honakoak:
 - a) Errepideetako seinaleak, tangak eta argiak, eta horiekin loturiko elementuak.
 - b) Aforoak kontrolatzeko instalazioak.
 - c) Zamak pisatzeko eta kontrolatzeko instalazioak.
 - d) Errepideen erabiltzaileentzako dauden herri-jabetzako aparkaleku eta atsedenlekuak.
 - e) Herri-jabetzako zerbitzuguneak.
 - f) Errepideen zerbitzurako dauden eraikinak, hala nola kontrolguneak eta material eta makina biltegiak.
 - g) Errepideak behar bezala artatzeko eta ustiatzeko dauden gainerako lurzati, eraikin eta instalazioak.
4. Bideei dagokienez, herri-jabariak zabalgune guztia hartzen du, egitura, horma, fabrika obra eta gainerako elementu funtzional guztiak barne.
5. Foru Arau honetan aurreikusitako ondorioetarako, errepideen nahiz bideen herri-jabariko lur guztiek haien "herri-jabarigunea" osatzen dute.

Errepide eta bideen babes-zona

Herri-jabariko zona (21. artikulua)

Herri-jabariko zona errepideek eta hauen elementu funtzionalak eta autobide, autobia eta errepide lasterretan zortzi metroko zabalerako eta gainerako errepideetan hiru metroko zabalerako zerrenda batek osatzen dute, bidearen alde banatan. Neurketa horizontalean eta bidearen ardatzarekiko perpendikularki egingo da, lur-berdinketaren kanpoaldeko ertzetatik hasita.

Zubi, biaduktu, tunel, egitura eta antzeko obren kasu berezietan, egituraren euskarriek hartzen dituzten lurak herri-jabarikoak izango dira.

Errepide baten elementu funtzionalak errepidearen kontserbazioari edo errepide zerbitzu publikoaren ustiapenari etengabe loturik dauden zona guztiak dira (atsedenlekuak, aparkalekuak, autobus-geltokiak, etab.)



Zona honetan organismo eskudunak baimena eman ondoren baino ezin izango dira obrak edo instalazioak egin, interes orokorreko herri zerbitzu bat egiteak hala eskatzen duenean.

Zortasun-zona (22. artikulua)

Errepideen zortasun-zona haien bi aldeetan dauden lur-zerrenda banak osatzen dute; barrutik herri-jabariko zonak mugatzen ditu eta kanpotik lur-berdinketaren kanpoaldeko ertzen paraleloak diren bi lerrok, 25 metroko distantzian autobide, autobia eta errepide lasterretan eta 8 metro gainerako errepideetan.

Zona honetan ezin izango da obrarik egin eta ez da onartuko bide segurtasunarekin bateragarriak diren erabilerez bestelakorik, betiere alde zurretik organismo eskudunak baimenduta. Honek zortasun-zona erabiltzeko baimena eman dezake interes orokorreko arazoak daudenean edo errepidearen zerbitzu hobek behar duenean.

Eraginpeko zona (23. artikulua)

Errepideen eraginpeko zona haien bi aldeetan dauden lur-zerrenda banak osatzen dute; barrutik zortasun-zonak mugatzen ditu eta kanpotik lur-berdinketaren kanpoaldeko ertzen paraleloak diren bi lerrok, 100 metroko distantzian autobide, autobia eta errepide lasterretan eta 50 metro gainerako errepideetan.

Eraginpeko zonan edozein motatako obra edo instalazio finkoak edo behin-behinekoak egiteko, horien erabilera edo xedea aldatzeko eta zuhaitzak landu edo mozteko, organismo eskudunaren aurretiko baimena beharko da.

Eraginpeko zonan lehendik zeuden eraikuntza eta instalazioetan konponketa eta hobekuntza obrak egin ahal izango dira, dagokien baimena lortu ondoren, betiere eraikuntzaren bolumena handitzen ez badute. Gainera, obra horiek ekar dezaketan balio-igoera ezin izango da desjabetzeetan kontuan hartu.

Eraikuntza-lerroa (25. artikulua)

Eraikuntza-lerroa galtzadaren kanpoaldeko ertzetik (linea zuria) 50 metrora dago autobia, autobide eta errepide lasterren kasuan, 25 metrora gainerako errepideetan eta 100 metrora herrietako saihebidetako kasuan.

Eraikuntza-lerroaren eta errepidearen artean debekatuta dago edozein eraikuntza obra egitea, baita egun daudenak berreraiki eta handiagotzea ere, egun dauden eraikuntzak kontserbatu eta mantentzeko ezinbesteko obrak direnean izan ezik. Zerrenda hauek eraikuntzarik gabe mantentzeak errepidea eta bere ingurua bateratzea du helburu, errepidearen segurtasun-maila eta funtzionaltasuna mantenduz eta etorkizunean errepideak handitzeko obrak egiteko aukera emanez.



Gutziz edo partzialki hiri-zonetatik igarotzen diren estatuko errepideetan organismo eskudunak eraikuntza lerroa oro har finkatutakoa baina distantzia txikiagoan ezarri ahal izango du, betiere dagokion hiri-plangintzak onartzen badu, araudi bidez ezartzen den prozedurari jarraiki.



IV.04. 16/1987 LEGEA, LEHORREKO GARRAIOAK ANTOLATZEKOAK

16/1987 Legeak, uztailaren 30ekoak, lehorreko garraioak antolatzeakoak, orokorrean aplikatzeko arauak ezartzen ditu. Zehazki, IV. kapituluak Trenbide Polizia du aztergai. Honela, 168. artikulua ondokoa ezartzen du:

"Trenbideei aplikatzekoak dira jarraian adierazitako xedea duten errepideen erabilera eta babesari buruzko arauak eta xedapenak:

- a. Trenbidearen, honen elementuen, fabrika-obren eta ustiapenerako beharrezkoak diren edozein motatako instalazioen kontserbazioa.
- b. Trenbidearen aldameneko lurri ezarritako mugak, hauek herri-jabariko zonak, zortasun-zonak edo eraginpeko zonak diren kontuan hartuta, dagokien distantzia lur-berdinketaren kanpoaldeko ertzetik zenbatzen hasita.¹
- c. Trenbideen kalte edo narriadura edo pertsonentzako arriskua saihestera zuzendutako debekuak.
- d. Iragaitza librea ez eteteko beharrezkoak diren debekuak."

Baina Lehorreko Garraioak Antolatzeako Legearen Araudia onartzen duen irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuaren VIII. tituluan ezartzen dira herri-jabariko zona, zortasun-zona eta eraginpeko zona kontzeptuatu eta mugatzeko arauak, trenbidearen aldamenean daudenez gero hainbat muga ezartzen baitzaizkie bertan egin daitezkeen obra eta jardueri dagokienez.

Trenbidearen aldameneko lurren mugaketa

- Herri-jabaria

Trenbidearen lur-berdinketak hartzen dituen lurak, haren elementu funtzionalak eta ustiapen egokia xede duten instalazioak eta trenbidearen alde banatan dagoen zortzi metroko zabalerako zerrenda bat dira herri-jabarikoak. Herri-jabariko lur hauek alde banatan eta erreferentziatzat hartzen den kanpoaldeko errailetik lur-berdinketaren kanpoaldeko ertzera iristen den zona bat neurtuz zehazten dira, eta zortzi metroko zabalerako bigarren zona bat gehitzen zaio ertz horretatik hasi eta horizontalean eta dagokion kanpoaldeko errailarekiko perpendikularki neurtuta.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako:

¹ Zerga, administrazio eta gizarte arloko neurriei buruzko uztailaren 30eko 50/1998 Legearen bitartez aldatua.



Lur-berdinketa lurraren berezko topografia aldarazi den lur-zerrendari deritzo; beraren gainean eraikitzen da trenbidea eta bertan kokatzen dira haren elementu funtzionalak eta instalazioak.

Lur-berdinketaren kanpoko ertza lubetako ezpondaren oinaren edo lubakiaren edo lurrerauzketaren tontor lerroaren edo, hala badagokio, eustormen eta berezko lubetaren elkarguneari deritzo.

Trenbidearen elementu funtzionalak eta instalazioak haren kontserbaziora edo trenbide-zerbitzu publikoaren ustiaketara iraunkorki zuzendutako ondasun, bitarteko eta gune guztiak dira, hala nola pasealekuak, bermak, arekak, seinaleak, itxiturak, trenbide pasaguneetarako irispideak, langak eta langaerdiak, transmisioak, konektoreak, lur gaineko, lur azpiko nahiz airetiko kanalizazioak, etxolak, kutxatilkak, transformadoreak, azpiestazioak, elikapen-lineak, airetiko kontaktu-linea eta antzekoak.

- Zortasun-zona

Zortasun-zona trenbidearen bi aldeetan dauden lur-zerrenda banak osatzen dute; barrutik herri-jabariko zonak mugatzen ditu eta kanpotik lur-berdinketaren kanpoaldeko ertzen paraleloak diren bi lerrok, 20 metroko distantzian. Neurketa horizontalean eta trenbidearen kanpoaldeko errailarekiko perpendikularki egingo da, lur-berdinketaren kanpoaldeko ertzetatik hasita.

- Eraginpeko zona

Trenbidearen eraginpeko zona trenbidearen bi aldeetan dauden lur-zerrenda banak osatzen dute; barrutik zortasun-zonen kanpoko mugek mugatzen dituzte eta kanpotik lur-berdinketaren kanpoaldeko ertzen paraleloak diren bi lerrok, 50 metroko distantzian. Neurketa horizontalean eta trenbidearen kanpoaldeko errailarekiko perpendikularki egingo da, lur-berdinketaren kanpoaldeko ertzetatik hasita.

Trenbidearen aldameneko lurrei ezarritako mugak

- Herri-jabaria

Trenbidearen herri-jabariko zonan trenbide-zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren obra edo instalazioak baino ezin izango dira egin, edo interes orokorreko herri zerbitzu bat egiteak hala eskatzen duenean, administrazio-organo eskudunaren baimena eskuratu eta linearen titular den enpresari entzun ondoren.

Salbuespen gisa, eta behar bezala justifikatutako arrazoiak daudenean, interes pribatuko obra eta instalazioek herri-jabariko zona airetik zein lur azpitik zeharkatzeko baimena eman ahal izango da.



- Zortasun-zona

Zortasun-zonaren barruan ezin izango da eraikuntza berriak edo berreraikuntzarik egin. Dena den, salbuespen gisa, biltzen diren zirkunstantziak aintzat hartuta eta trenbideari kalterik eragingo ez zaiola justifikatzen denean, enpresa ustiatzaileak horretarako baimena eman lezake, aldez aurretik obrei adostasuna emanaz.

- Eraginpeko zona

Eraginpeko zonan eraiki eta berreraikitze edo edozein motatako obra eta instalazio finkoak edo behin-behinekoak egiteko, horien erabilera edo xedea aldatzeko eta zuhaitzak landu edo mozteko eta, oro har, trenbideari, honen lurrei, instalazio edo eraikinei mugak ekar diezazkiekeen edozein jarduera garatzeko, linearen titular den enpresaren aurretiko baimena beharko da, eta honek kasuan kasuko jarduera zein baldintzatan garatu beharko den finkatu ahal izango du.

Trenbide pasaguneak

Euskal Autonomia Erkidegoko Jaurlaritzaren Kontseiluak 1994ko irailaren 27an onartu zuen "1994-1999 Trenbide arloko Jarduera Planak", trenbide pasaguneetan gauzatu beharreko jardueren artean, Lehorreko Garraioak Antolatzeke Legearen Araudiaren 235. artikuluan² eta hura garatzen duten ministro-aginduetan xedatutakoa mailaka eta pixkanaka betetzea proposatzen du.

Bestalde, hasiera batean onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Antolamendurako Arloko Planak lehentasunez definitzen ditu:

"Trenbide pasaguneetako jarduerak, hauei konponbidea emateko proposamenen bitartez, inplikaturik dauden administrazioak eta partikularrak bilduz."

ET/FV enpresaren Donostia - Hendaia lineako trenbide-pasaguneen inbentarioan, honako hauek daude Errenteriako udalerrian, dagozkien kodeen arabera:

REN401:.....	Gaztaño auzorako sarbidea.
REN402:.....	Nasen arteko pasagunea Errenteriako geltokian.
REN403:.....	Fanderian.

² Lehorreko Garraioak Antolatzeke Legearen Araudiaren 235. artikulua (1211/1990 ED) trenbide pasaguneak kentzea arautzen du, trafiko-intentsitate jakin bat dagoen kasuetan eta pasagune horiek araupetzen dituen araudiari jarraiki kentzea beharrezkoa edo komenigarria denean. Halaber, trenbide pasaguneak kentzearen kostua bere gain hartzea nori dagokion adierazten du, pasaguneak duen trafikoaren arabera, eta maila desberdineko bidegurutze berria ezartzearen kostua esleitzen dio sustatzaileari; hori guztia, interesdun erakundeek ezar litzaketen hitzarmen edo akordioen kaltetan izan gabe.



Hala ere, adierazi beharra dago Fanderiako hirigintza garapenaren ondorioz REN403 pasagunea dagoeneko desagertu egin dela.

Nabarmendu beharra dago linea honek Donostia eta Oiartzun artean dituen trenbide pasagune bakarrak Errenteriako hauek direla. Gaur egun, hain zuzen, Gaztaño auzora eta, horrenbestez, Euskotrenen lantegietara sartzeko, trenbidea zeharkatu behar da REN401 trenbide pasagunetik.



IV.05.

27/1992 LEGEA, ESTATUAREN PORTU ETA MERKATARITZA FLOTARENA

27/1992 Legeak, azaroaren 24koak, Estatuaren Portu eta Merkataritza Flotarenak, 1. artikuluan ezartzen du bere xedea dela, besteak beste, "Estatuko Administrazioaren eskumenekoak diren portuak eta itsas instalazioak zehaztu eta sailkatzea".

Legearen Eranskinean Estatuko Administrazioaren eskumen eskusibokoak diren interes orokorreko portuen zerrenda jasotzen da eta hauen artean dago, hain zuzen ere, Pasaiaiko portua.

Legeak estatuaren eskumeneko zerbitzu-zona araupetzen du 15. artikuluan:

"Herrilan eta Garraio Ministerioak zerbitzu-zona bat mugatuko du estatuaren eskumeneko portuetan; zona honek bere jarduerak burutzeko beharrezkoak diren lur eta ur azalerak, haien zeregin osagarrietara zuzendutakoak eta portu-jarduera garatzeko aukera bermatuko duten erreserbako espazioak barne hartuko ditu."

Errenteriarri bereziki dagokionez, administrazio-egoera ondokoa da:

Portu-zonaren mugaketa 1990eko azaroaren 20ko Ministro Aginduaren bidez onartu zen. Halaber, kontuan izan behar da 1998ko maiatzaren 27 Ministro Agindua N-I errepidearen Errenteriako saihebidetara eraikitze beharrezkoak ziren lur jakin batzuk portuaren herri-jabariaren eraginpetik kendu zituela eta, horrenbestez, hasierako mugaketa ildo horretan aldatu egin zela.

Halaber, 1990eko mugaketa onartu zenean Kaputxinoetako Penintsulan zeuden enklabe pribatuei (Asturiana del Zinc eta KOIPE, SA) dagokienez, zerbitzu zonari gehitu zaizkio eta bidezko titulartasun aldaketak egin dira Portuko Agintaritzaren alde, desjabetze eta salerosketa bidez, hurrenez hurren.

Legeak 3. atalean, "Plangintza, Proiektuak eta Eraikuntza", eta zehazki, 18. artikuluan, "Portuen hirigintza kontsiderazioa" araupetzen du honako termino hauetan:

1. Portuko espazioan eskumena duten administrazioen arteko beharrezko koordinazioa artikulatzeko, plan orokorrek eta hirigintza antolamenduko gainerako tresna orokorrek portu sistema orokor gisa kalifikatu beharko dute estatuaren portuetako zerbitzu zona, eta ezin izango dituzte portua ustiatzeko eskumenak erabiltzean interferentzia edo perturbaziorik eragin dezaketen zehaztapenak barne hartu.
2. Portu sistema orokor hori jarraian adierazitako eran instrumentatuko den plan berezi edo tresna baliokide baten bitartez garatuko da:



- a) Portuko Agintaritzak formulatuko du plan berezi hori.
- b) Planaren izapideak eta onarpena hirigintza-legerian eta lurralde antolamenduari buruzkoan aurreikusitakoari jarraiki egingo ditu hirigintza arloko administrazio eskudunak.
- c) Izapideak amaitu ondoren, plan berezia behin betiko onartu baino lehen, hirigintza-arloko administrazio eskudunak, behin-behineko onarpenetik hasi eta hamabost eguneko epean, plan bereziaren edukia Portuko Agintaritzari helaraziko dio, honek hilabeteko epean bere eskumeneko alderdiei buruzko iritzia adieraz dezan.

Planaren edukia Portuko Agintaritzari helarazten ez bazaio edo honek hirigintza arloko administrazio eskudunaren proposamenari buruzko kontrako iritzia azaltzen badu, administrazio honek ezin izango du plan berezia behin betiko onartu, eta beharrezkoak diren kontsultak egin beharko ditu Portuko Agintaritzarekin, planaren edukia buruzko akordio batera iristeko.

Portuko Agintaritzak kontrako iritzia azaldu duenetik hasi eta sei hilabeteko epean desadostasunak bere horretan jarraitzen badu, Ministro Kontseiluari egokituko zaio arazo honi buruzko txosten loteslea ematea.

Idatz-zati honek aztergai dituen plan berezien behin betiko onarpena Agintaritzari jakinarazi beharko zaio Administrazio Prozeduraren Legean ezarritako baldintzekin (RCL 1958/1258, 1469, 1504; RCL 1959/585 eta NDL 24708).

3. Plan bereziak bere zehaztapenen artean barne hartu beharko ditu portuko espazioaren ustiapen eraginkorra, garapena eta lehorreko garraio sistema orokorrekiko lotura bermatzeko beharrezkoak diren neurriak eta aurreikuspenak.